Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Hiriburuetako bost alkate euskaldunak, fakultatean, mahai baten bueltan, martxoaren 10ean

2016/03/09

Euskal Herriko hiriburuetako bost alkate euskaldunek parte hartuko dute, martxoaren 10ean, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak antolatu duen mahai-inguru batean. Eskoriatzako campusean egingo den ekitaldian, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Joseba Asiron Iruñeko alkateak, Michel Etchebest Mauleko auzapezak, Eneko Goia, Donostiako alkateak eta Gorka Urtaran Gasteizko alkateak partekatuko dituzte euskarari buruzko esperientzia pertsonalak eta profesionalak. Mahai-ingurua 17:00etan hasiko da eta parte hartu ahal izateko, aldez aurretik, izena eman beharko da. Streaming bidez ere eskainiko da ekitaldia zuzenean.

Euskal Herriko hiriburuetako alkateak. Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronkak izenpean, mahai-inguruak bi zati izango ditu, bata profesionalagoa eta, bestea, pertsonalagoa. Lehenean, alkateak zentratuko dira administrazio publikoan egiten duten lanean eta, euskararekin lotuta, alkate moduan esku artean dituzten erronketan; bigarrenan, aldiz, hizlariek zirriborratuko dute euren biografia linguistikoa: noiztik, nola eta zein harreman izan duten euskararekin. Fakultateko Euskara batzordeko ikasleek ere parte hartuko dute ekitaldian.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Juan Mari Aburto, Joseba Asiron, Michel Etchebest, Eneko Goia eta Gorka Urtaran.

Parte-hartzaileak

- **Juan Mari Aburto** (Bilboko alkatea).
- **Joseba Asiron** (Iruñeko alkatea).
- **Michel Etchebest** (Mauleko auzapeza).
- **Eneko Goia** (Donostiako alkatea).
- **Gorka Urtaran** (Gasteizko alkatea).
- Moderatzailea: **Nekane Goikoetxea** (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea).

Izena emateko

Tokia mutatua denez, hitzaldira joan ahal izateko derrigorrezkoa izango da aldez aurretik izena ematea. Hiru bide daude horretarako:

- **Online**: izen-emate orria
- **Telefonoa**: 943 71 41 57
- **Posta elektronikoa:** harrera.huhezi@mondragon.edu

Streaming-en bidez ikusteko

Internetetik ere egongo da aukera zuzenean mahai-ingurua jarraitzeko:

- **MUtelebista**: http://mukom.mondragon.edu/mutb/zuzenekoak/
- **Goiena.eus** webgunean

Gainera, Eskoriatzako campusean bertan prestatuko da bigarren areto bat ekitaldian zuzenean jarraitzeko.